AITONAREN MAGALEAN

ARITZ IBARRA DAGERRE
Lehen Hezkuntza 2. saria
Berako Labiaga Ikastola

Behin batean ni egunerako martxara nindoala, entzun nuen ohatzean liburua irakurtzen nuen bitartean, nire gurasoak erdi oihuka eztabaidan ari zirela. Bi egun normal pasatu ondoren berriz ere eztabaidan aditu nituenean, liburua bota eta haserre samar joan nintzen sukaldera, ni ikustean kezka aurpegiarekin begiratu zidaten. Orduan jakin nuen zer adosten ari ziren.

Nik ez nekien zer egin, zeren kontua zen, aitari Euskal Herritik kanpo lanpostu ona izanen zuela erran ziotela eta orduan bi hilabeterako Portugalera bidaia egin behar genuela, nik ordea ez nuen joan nahi.

Ondoren aitak proposatu zuen neu amatxi eta aitatxiren etxean egotea, beraiek bidaia egin bitartean, amak ondo egongo nintzela, bestenaz lagunak faltan botako nituela. Ama bekaizki jarri zen eta esan zuen:

–Eta ez al gaituzu ba gu faltan botako?

Eta nik esan nion aunitz faltan botako nituela baina nahiago nuela aitatxi-amatxiren etxean geratu.

Hurrengo egunean, aitatxi-amatxiak etorri eta aireportura joan ginen, gurasoak agurtzera, amak esan zidan:

–Aritz ongi portatu.

Aitatxik bere kotxe zaharra arrankatu eta etxera joan ginen motel-motel; afaldu ondoren ni liburua irakurtzen hasi nintzenean aitatxi etorri, liburua kendu eta magalera igotzeko esan zidan. Berehala kontrabandistei buruzko istorio bat kontatzen hasi zitzaidan. Baina nik ez nekien zer zen kontrabandista hitza, berak azaldu zidanez bere kasuan Frantziatik Espainiara gauzak ekartzea zen. Honela hasi zitzaidan:

“Behin hamahiru bat urte nuenean hasi nintzen kontrabandoan, agian Espainian lanean arita baina diru gehiago irabazten genuen. Hemengo pertsonak isilka kontratatzen gintuzten, Frantziako gauza merkeak, hemen garesti zena, handik ekartzea zen gure lana. Gaur egun diru eskasia ez dagoenez ez dugu arazorik. Baina ez zen, ematen duen, bezain erraza. Frantziako mugetan guardia

zibilak egoten ziren eta orduan harrapatzen bagintuzten den-dena kendu eta beraiek eramaten zuten. Nik horrelaxe irabazten nuen dirua, kontrabandoan. Ez harrapatzeko gauez ateratzen ginen".

Ni adi-adi nintzenez eta den-dena jakin nahi nuenez, hau galdetu nion aitonari:

–Ba noiz ateratzen zineten ilunean ezin ikusiz?

–Hamabiak aldera ilun-ilun zegoenean eta hobe, erantzun zidan.

Eta bere istorioarekin segitu zuen, nik bere magalean postura hobeagoa hartzen nuen bitartean:

–Nik izugarri istorio pila ditut kontrabandistei buruz, baina politena kontatuko dizut.

"Astebururo bezala, Tomas eta ni, gure lanetara joan ginen, kontrabandoan aritzera. Tomas baldar samarra zen. Bidexka estu batetik pasatzen ari ginen Frantziara joateko, handik behar genuena hartzeko, dena ondo zihoan baina bat-batean poliziak ikusi genituen. Gu belardi batean makurtuak ginen eta motel begiratu genuen ea bazihoazen, orduan Tomasek saguzarra ikusi eta garrasi ozen bat egin zuen, poliziak zalditik jaitsi eta gu ikusi gintuzten. Gu ziztu bizian joan eta poliziek tiroka segitzen ziguten eta belategiko ataka pasatu behar genuen. Ordurako eskuetatik Frantziako laranja erdiak erori zitzaizkigun. Nik mantso-mantso zeharkatu nuen ataka ez engaixteko baina Tomasek gainetik salto egin nahi zuela, pasatzen ari zenean alanbreko pintxoetan zintzilik gelditu zen, eskua eman eta alde egitea lortu genuen.

Etxera iritsi ginenean nik bi laranja besterik ez nuen eta Tomasek ezta bat ere, eta gainera, galtzetan izugarrizko tarrata".

Nik izugarrizko irriak egin nituen, egunero halako istorioak kontatzen zizkidan. Bi hilabeteak izugarri agudo pasa zitzaizkidan batez ere aitonarekin, baina azken eguna iritsi zen. Aireportura joan, gurasoei itxaron eta etorri zirenean izugarrizko besarkada eman nien eta etxera etorri bezain laster pasarte on hau idazten hasi naiz.